

BEASAINGO UDALA ETA LOINAZ TXIRRINDULARI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA HERRIAN TXIRRINDULARITZA SUSTATZEKO

Beasainen, 2025eko otsailan

BILDURIK

Alde batetik, **Leire Artola Ugalde** andrea **BEASAINGO UDALAREN** (IFK, P2002100B), ordezkari gisa, Alkatea den heinean, Korporazio osatzeko bileran 2023-06-17an kargu hori betetzeko izendatua izan zelako. Egintza honetarako ahalmena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1b) artikulua ematen dio.

Bestalde, **LOINAZ TXIRRINDULARI ELKARTEA** G20365003 IFK zenbakiduna eta egoitza Beasainen duena, Zelaeta kalea behe helbidean, egintza honetan **Jon Etxaniz Gartzia** jaunak ordezkaturik, adinez nagusia dena, 15397790A NAN zenbakiduna, ordezkari elkarteko Batzar Nagusiak burututako izendapenaren arabera jarduten duena.

AURREKARIAK

I.- Udalaren eskumen propioen artean ondorengoa dago:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOAL) 25.m) artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, udalerriak, bere eskumen gisa, besteak beste, ondorengoa du: "*kirola eta kirol-taldeen jarduerak zein instalazioak*".
- Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17,1 artikulua udalerriek beren eskumen gisa izan ditzaketen eskumenak zerrendatzen ditu, eta horien artean, 19) "*Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea*".

II.- Loinaz Txirrindulari Elkartek garatzen dituen jarduerak eta diru laguntza honen xede direnak Beasaingo Udalaren diru laguntzak emateko eskumen alorren barne daude, Beasaingo udalerrian Txirrindularitzaren garapena helburua duen proiektua baita.

III.- Bi aldeek hitzarmena burutzeko interesa dute, Beasainen txirrindularitzaren sustapenak herritarren aisialdian eragin positiboa edukitzeaz gain, kirolaren sustapenean eragiten duelako. Beasaingo herritarrek kirolaz gozatzeko aukera emateaz gain (ikusle bezala edo parte hartzaile bezala), kirola praktikatzeko motibazio aparta delako.

IV.- Hori dela eta, Loinaz Txirrindulari Elkartek dirulaguntza eskaera aurkeztu du, proposatzen duen egitasmoarekin eta aurrekontuarekin.

V.- Uka ezina diruz lagundu nahi dena, udalaren eskumen eremuaren alorrean dagoela, eskumenaren eta gastuaren arteko lotura hertsia dagoela eta helburu publiko bat sustatzearekin bat datorrela.

Arrazoi horregatik eta kontuan izanda Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 2. artikulua aurreikusten dituen xehetasunak betetzen direla, 2025.urteko udal

aurrekontuan 0261.481.341.00.10 partida izenduna kontsignatu da, 53.327,00 €koa honako proiektu hau diruz laguntzeko.

- Txirrindularitza federatuaren sustapena

VI.- Horren ondorioz, bi alderdiek elkarri kontratatzeko eta betebeharrak hartzeko gaitasuna aitortu diote eta hitzarmen hau honako klausula hauen arabera idaztea adostu dute:

ESTIPULAZIOAK

Lehenik. **Helburua:** Hitzarmen honen xedea esku hartzen duten alderdien eskubideak eta betebeharrak arautzea da, Beasainen txirrindularitzaren sustapena burutzeko, Loinaz Txirrindulari Elkarteari 53.327,00 €ko dirulaguntza emanez.

Bigarren. **Loinaz Txirrindulari Elkartearen betebeharrak:**

1.- Diruz lagundutako jarduerak burutzea, hain zuzen ere:

- Txirrindularitza federatuaren sustapena

2.- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen Lege Orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

3.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

4.- Udal organo eskudunak edo udal kontuhartzaitzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

5.- Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako diru laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.

6.- Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeen heinean.

7.- Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, onuradunak aldeztu aurretik eskatuta Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilia.

Aipamen hori egiterakoan ondorengoak kontuan izango dira:

- 1990eko martxoaren 8an Beasaingo Udalak Osoko Bilkuran onartu zuen udalerrian euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko Udal Ordenantza.
- *1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA*, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

8.- Diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.

9.- Txirrindularitzaren sustapena egiterakoan gerta litezkeen kalte guztiak estaltzeko moduko erantzukizun zibileko poliza bat izatea.

Hirugarren. Beasaingo Udalaren betebeharrak:

Beasainen txirrindularitzaren sustapenean, Beasaingo Udalak dirulaguntza nominatibo gisa, 53.327,00 € ordainduko dio, jarraian adierazitako moduan:

- 1. ordainketa 50.000 eurokoa, hitzarmena sinatu ondoren, ordainketa aurreratu gisa, betiere egiaztatu bada onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, edozein ordainketa egin aurretik, azken agiriekin indarra galtzen badu Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsulta eginez.

Hala ere, onuradunak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.

- 2. ordainketa, zuriak aurkezten dutenean. Zuriak dokumentu hauek modu egokian aurkeztutakoan.:
 - Burututako jardueraren laburpen txostena.
 - Jardueren memoria ekonomikoa. Gastuaren justifikazioa, faktura edo dokumentuen kopiak edo zerrenda (zenbakia, data, kontzeptua eta zenbatekoa), elkarteko Diruzainak sinatua. Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko, aurretiazko akordioz izan ezaz.
 - Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (aurreko tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkartearen aitortzea aurkeztuz jarduerarekin loturiko gastuak direla eta beti ere Fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretua jarraituz.
 - Diruz lagundutako jardura finantzatu duten diru-sarrera edo dirulaguntza guztien erantzukizunpeko adierazpena, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita. Baita jardura horrekin lotutako beste sarrerarik ez dela egon, eta bestelako sarrerarik jasoko balute, horren berri izan bezain pronto Udalari jakinaraziko lioketela.
 - Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bat.
 - Euskara eta berdintasun klausulak bete direnaren ziurtagiria, hitzarmenaren sinatzaileak sinatuta.

Laugarren. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak.

Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.

- b) Interesak, errekarguak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialako gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.

Bosgarren. Gastuak justifikatzeko epea:

2025eko azaroaren 30erako izandako gastuen justifikazioa aurkeztu beharko da, hirugarren estipulazioan aipatutako moduan.

Seigarren. Beste laguntza batzuekin bateragarritasuna:

Diru laguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandakoak, edo Europar Batasunak edo nazioarteko erakundetakoak badira ere.

Zentzu horretan eta diru laguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako diru laguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Jarduerak finantzatzeko, diru laguntzaz gain, funts propioak edo beste diru laguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

Zazpigarren. Hitzarmenaren iraupena:

Hitzarmen honen indarraldia, 2025-12-31artekoa izango da eta ezin izango da luzatu.

Zortzigarren. Jarraipen, zaintza eta kontrol mekanismoak:

Hitzarmenaren betearazpenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko, eta hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, batzorde bat sortuko da, kide hauek osatua:

- Udal-erakundearen aldetik, kirolerako zinegotzi arduraduna, eta kiroldegiko kudeatzailea, hitzarmenari dagokionez
- Loinaz Txirrindulari Elkartearen aldetik, Lehendakaria eta kirol batzordeko arduraduna, hitzarmenari dagokionez.

Bederatzigarren. Alderdien arteko jakinarazpenak eta komunikazioak:

Hitzarmen honen esparruan egiten diren jakinarazpenak eta komunikazioak honako pertsona hauei bidali beharko zaizkie:

- Udalaren aldetik: kiroldegiko kudeatzailea
- Loinaz Txirrindulari Elkartearen aldetik: kirol batzordeko arduraduna.

Hamargarren. Onartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak:

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

Diru laguntzaren onuradunak onartutako betebeharrak eta konpromisoak bete behar dira, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli behar du, gehi diru laguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak.

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu behar da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailearen edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

Hamaikagarren. Hitzarmena bertan behera geratzea:

- 1- Epea amaitutakoan.
- 2- Bi aldeek espresuki horrela adosten dutenean.
- 3- Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen ez dituztenean.
- 4.- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.

Hitzarmena suntsiarazteak azkeneko eguneko diru alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.

Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdietzat onargarriak diren baldintzetan.

Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzeazina ezarrita.

Hamabigarren. Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzio aplikagarria:

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan arabera, hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da eskumena duena.

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebaztzeko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Eta aurreko guztiarekin adostasun frogatzat, bildutakoek hitzarmen hau sinatu dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean

BEASAINGO UDALA

Leire Artola Ugalde
Alkatea

LOINAZ TXIRRINDULARI ELKARTEA

Iakes Lopez Godoy
Lehendakaria

Sinatua : Mariola Pascual Paredes
Alkateak 2023-7-3an emandako
2023/1116 Ebazpenak baimenduta



EKS | CSV: ESKUe704b33b-f4b5-426b-8eae-ab050a87c577

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025KIBO0002-Hitzarmena/Convenio2 ()